

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2008ko MAIATZA

Euskal AEko industri jarduera %1,4 murriztu zen 2008ko maiatzean

2008ko lehenengo bost hiletan %1 izan da hazkunde metatua


Eustatek landutako datuen arabera, 2008ko maiatzean %1,4 murriztu zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneousetan, 2007ko hil beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, %2,6 murriztu zen Euskal AEko industri produkzioa, 2008ko apirilarekin alderatuta.

2008ko lehen bost hiletako balantzea Industri Produkzioaren Indizearen %1eko hazkunde metatuarekin itxi da, aurreko urteko aldi beraren aldean. Indizearen bilakaera aztertuz gero, bigarren hiruhilekoan industri jardueraren bizkortzea izan dela ikusten da; lehenengoan %+0,7 izan zen datua eta bigarreanean %+1,8.

1. grafikoa: Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiru hileroko hazkunde zuzendua

% hazkundera



(*) 2008ko apiril-maiatzeko urte arteko hazkunde zuzendua

Iturria: Eustat

Sektoreen araberrako bilakaera

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusiak sailkatu ostean, 2008ko maiatzeko indizearen bilakaera jaitsi egin da denetan, Energiari (%+5,6) izan ezik, 2007ko maiatzaren aldean. Ekipoko ondasunek %-1,3ko jaitsiera izan dute; Bitarteko ondasunek %-0,6; eta Kontsumoko ondasunek %-9,9, Kontsumo iraunkorreko (%-17,9) eta ez-iraunkorreko (%-6,4) ondasunen jaitsieragatik.

2008ko maiatzeko hil arteko aldakuntzak negatiboak izan dira 2008ko apirilaren aldean industri sektore handi guztientzat, Energiarentzat izan ezik, zeina %0,2 igo baita. Ekipoko ondasunek %-3,5eko jaitsiera izan dute; Bitarteko ondasunek %-1,2; eta

Kontsumoko ondasunek %-6,3, Kontsumo iraunkorreko (%-13,4) eta ez-iraunkorreko (%-3,3) ondasunen jaitsieragatik.

Lurralde Historikoen arabera bilakaera

Lurralde historikoei dagokienez, Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera negatiboa izan da hiru lurraldeetan: Araba eta Bizkaia %-2 jaitsi dira eta Gipuzkoa %-0,5.

2008ko maiatza 2008ko apirilarekin alderatuz gero bilakaerak negatiboak izan dira: Araban %-3,6 jaitsi da, %-2,7 Gipuzkoan eta %-1,9 Bizkaian.

1. taula: 2008ko MAIATZA. Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzio Indizearen aldakuntza-tasak (%)

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	Mai08/Mai07	At/At-1 (1)	Mai08/Api08	Api08/Mar08
Indize orokorra: Euskal AE	-1,4	1,0	-2,6	2,1
Araba	-2,0	0,0	-3,6	3,3
Bizkaia	-2,0	1,6	-1,9	0,1
Gipuzkoa	-0,5	1,1	-2,7	3,7
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	-9,9	-1,7	-6,3	2,6
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-17,9	-7,1	-13,4	8,8
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-6,4	0,6	-3,3	0,2
Ekipo-ondasunak	-1,3	1,7	-3,5	3,4
Bitarteko ondasunak	-0,6	2,5	-1,2	1,5
Energia	5,6	5,1	0,2	-2,1

(1) t urteko urtariletik azken hileraren arteko metatutako aldiaren urtetik urterako aldaketa-tasa da, t-1 urteko aldi berberaren aldean.

Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Telef.: +34 -945 75 00 Faxe: +34 -945 75 01 e-mail: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp